

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2991

*1015/2024 EBAZPENA, maiatzaren 23koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez adierazten den María Carmen Rodríguez Rodríguez andreak, Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerentea izateari uzten diola erretiroagatik.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1375/2005 Ebazpenaren bidez (2005eko otsailaren 21eko EHAA, 221 zk.), Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerente lanpostua betetzeko deialdi publikoa egin zen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 13ko 1501/2005 Ebazpenaren bidez (2006ko urtarrilaren 26an argitaratu zen), María Carmen Rodríguez Rodríguez andrea Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerente izendatu zen.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak ikusi ondoren, zuzendari nagusiak honako hau

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– María Carmen Rodríguez Rodríguez andrea Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerente lanpostutik kentzea, erretiroa hartu duelako, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2024ko uztailaren 1eko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Gorlizko Ospitaleko Pertsonen Zuzendaritzari eta Plangintzako eta Kudeaketako Zuzendariordezari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 23a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.